# GERNIKA-LUMOKO UDALERAKO MOZIOA

SECRETARIA

Nik FIDEL ARELLITA ZABALAURTENAK ondoko N.A.N.-arekin 72244701.. GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEAREN ordezkari bezala, mozio hau aurkezten dut datorren udal plenoan aztertua eta onartua izan dadin.

Izenburua; "Gernika-Lumoko udalerria desnuklearizatzearen aldeko adierazpena".

"1.984-ko Urtarrilaren 31... egunean, Gernika-Lumoko udalak batzar orokorrean bilduta dagoelarik, demokratikoki errepresentatzen duen udalerria desnuklearizatua deklaratzea erabakitzen du. Eta horregatik, ondoko hau agertzen du:

- Energia nuklearraren erabilpen zibil eta militarraren aurka dagoela.
- Armamendu militar atomikoaren erabilpena, pilaketa eta eraiketa debekatuta dagoela, udalerri honetan.
- Baita, zentral nuklearraren ezarketa edo eta, energia nuklearrarekin erlazionaturik dagoen beste edozein instalaziorena.
- Debekatzen dela ere, energia nuklearrarekin erlazionaturik dagoen edozein garraioren pasaera.
- Eta azkenik, herrien garapen baketsuaren alde, planetaren errekurtsoen erabilpen arrazionalaren alde, mogimendu pazifistaren alde, bake mundiala eta desarmearen alde, eta blokeen politikaren aurka dagoela.

Gernika-Lumo, 1.984-ko Urtarrilaren 25... egunean.

Gernikako Ekologi Lan Taldearen Lehendakaria.

GERNIKA-LUMOKO UDALEKO ALKATE JAUNA .- - - - - - - - - -